



Dibertsitate funtzional fisiko eta sentsoriala duten seme-alaben gurasoen taldea da. Helburua indarrak batzea izanik, 2014an talde berria sortzea erabaki eta Karenka izena jarri zitzaion. Guraso elkarteak, bizitzako eta jendarteko esparru guztietan euren seme-alabentzako inklusibitatea eskatzen du. “Gure seme-alabek izan ditzaketen beharrei modu eraginkor batean aurre egiteko elkartu gara. Hain zuzen ere, haien eskubideak eguneroko bizitzako esparru guztietan bermatuta izan nahi genituzke”.

Gauzak bananduta egin ordez, elkarrekin egitea beharrezkoa dela ulertzen dute. “Elkarrekin lan eginda, indarrak metatu, ideiak elkartrukatu, adorea partekatu eta erakundeen aurrean elkarturik aurkeztuko ginake. Azken finean, gure seme-alaben eskubide guztiak bermatzen direla ziurtatu nahi dugu”.



Karenka elkarteko gurasoak eta udal ordezkaria

2014ko azaroan hasi zen abantean talde berria, [Ondarroako Udalaren Ongizate Batzordearen](#) babesarekin, eta elkarte bezala 2015ko ekainean eratu zen. “Herriko guraso eta udal ordezkariak, herrian horrelako talde bat sortzeko premia zegoela ikusi genuen. Ume bakoitzak bere premiak baldin baditu ere, beste premia asko berdinak zirela konturatu ginen. Hainbat gurasogaz kontaktuan jarri, eta martxan hasi ginen”.



Taldearekin harremanetan jarri nahi duten familiek honako helbidera idatzi dezakete:
Karenka Ondarroako guraso taldea – San Ignazio kalea 23 – 48.700 Ondarroa (Bizkaia).
Horrez gainera, *karenkaondarru@gmail.com* posta elektronikoz ere eska daiteke informazioa.

Herri mailan eta eskualde mailan sortu den modu horretako lehen taldea da, eta etorkizunean sarea eskualde mailara zabaldu nahiko luketela nabarmentzen dute une oro taldeko kideek. “Horixe da gure hurrengo erronkarik nagusienetariko bat”. Era berean, euren helburuetako bat taldea bistaratu eta herriratzea ere bada. “Gure lana ezagutzera eman nahi dugu, eta horrez gain, sentsibilizazio kanpainak ere abantean ipini”. Herriratutako ekintzen artean, mendiko ibilbide edo txango inklusiboak eta hondartzako lagundutako bainua herriratzeko egindako ezinbesteko ekarpenaz gain, pasarela berriaren lorpena gehitu daitezke.